


Proficient Europako STEM Labela

IKASTETXEETAKO
ZIENTZIA-TEKNOLOGIA
IKASARLOEN GAITASUN ZIGILUA



TRINPART

ALDIZKARIA / 2023ko urtarila / www.haurtzaroikastola.eus

AURKIBIDEA

Agurra	_03
Gai Nagusia	_04
Berrikuntzak	_06
Irakasleak	_10
Gurasoak partaide	_12
Urmendi	_14
Hatzak bete lan	_18
Argazki-albuma: Gabon kantari, San Nikolas, San Tomas	_30
Taldea	_32
Laburrak	_36
Eskolaz kanpokoak	_38
Oiartzo	_42

TXINPART

Haurtzaro Ikastola
Elorrondo z/g - 20180 Oiartzun
T.: 943 49 16 59
haurtzaro@ikastola.eus
LG: SS-129 / 2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
DIXIDU Diseinu Grafikoa





AGURRA

Kaixo guztioi, hemen duzue *Txinpart!* aldizkariaren 78. zenbakia. Behin pandemiaren kontuak atzean utzi eta normaltasunera itzuli garen honetan, ez dira gutxi aurrean ditugun erronkak. Nabarmenena eta hurrengo urteetako ibilbidea urratuko duena, Hezkuntza Lege Berria izango da. 2022an zirriborro bat aurkeztu zen eta oraindik Legebiltzarrean lantzea geratzen den arren, oso adi egotea tokatzen zaigu, lege horrek arautuko baitu datozen urteetan erkidegoko hezkuntza markoa zein izango den. Besteak beste, itundutako gela kopuruak, matrikulatu ahal izateko baldintzak, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoan parte hartzeko baldintzak,... erabakiorrak guztiak. Hezkuntza Lege berri baten beharra badugu (aurrekoa 1993. urtekoa da) eta hau garatzen den bitartean, gainean egotea tokatzen zaigu.

Baina kontu gehiago ere baditugu kontatzeko eta ale hau ere, pottoko-pottoko dator. STEM label-ean *Proficient* maila lortu du Haurtzaro Ikastolak eta hau guztia zertan datzan azaldu dizuegu. Gurea bezain jendetsua eta anitza den komunitatean kezkatzen gaituzten gaiak aurrera atera ahal izateko, bada denbora bat guraso ordezkariak dinamika berriak martxan jarri dituztela eta horren berri ere topatuko duzue. Urmenditik ere baditugu berriak, Oiartzotik bezalaxe eta dagoeneko finko ditugun betiko atalekin, oraingoan ere *Txinpart!* interesgarri bat lotu dugulakoan gaude.

Besterik gabe, jarri eroso eta goza ezazue!

01. GAI NAGUSIA



EUSKAL HEZKUNTZA ZERBITZU PUBLIKOA

IKASTOLEN PROPOSAMENA, “PUBLIKO-HERRITAR” IKUSPEGITIK ABIATUTA

Hezkuntza oinarritzko eskubide unibertsala da, eta, oinarritzko eskubidea izanik, estatuei eta administrazioei dagokie berau egikaritzea. Zentzu horretan, eta horregatik hain zuzen ere, hitz egiten dugu Hezkuntza Zerbitzu publikoaz: **Dagokion Administrazioak Hezkuntza oinarritzko eskubide unibertsal bezala kontsideratuta berau ziurtatzeko erabiltzen dituen formulak eta tresnak.** Baina nola egiteratu-egin hori? Horretaz ari gara hurrengo lerro hauetan, ikastolen ikuspuntutik abiatuta.

Hezkuntza publikoaz mintzatzerako orduan, Euskal Herrian oso maiz Espainiako eta Frantziako sistemak hartzen dira eredu gisa, zer den publikoa eta zer ez den ezartzerako orduan, eta horrek eztabaida mugatu eta lerrokatu egiten du. Horrela, estatuen edo tokian tokiko gobernu autonomikoen jabetzakoak diren eta haiek zuzenean kudeatzen dituzten ikastetxeek osatuko lukete hezkuntza publikoa; langileak (irakasle zein ez irakasle) oposizioak gainditutako funtzionarioak lirakeke, eta estatuak edota gobernu autonomikoen izendatuko lituzkete zuzenean. Europan, ordea, hezkuntzaren publikotasuna ulertzeko modu eta eredu desberdinak daude, eta pisu desberdina dute administrazioen titulartasuneko ikastetxeek eta herri ekimenetik sorturikoek edota erlijiosoek. Langileak kontratatze eta kudeatzeko orduan ere, askotariko ereduak ditugu.

Abiapuntua hori izanik, Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako Hezkuntza Lege berri bati begira, hauxe da Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa birformulatzeko ikastolen proposamena.

Hezkuntza Akordioan esandakoaren arabera, eskubide eta betebeharrak zehatzak ezarriko dira Hezkuntza Zerbitzu Publikoan sartuko diren ikastetxeentzat. Ikastolok ados gaude ideia berri horrekin; Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren kudeaketa oso ezberdina izan daiteke, baina guretzako oinarritzko ideia da ikastetxe guztiek eskubide eta betebeharrak berdinak izan beharko dituztela.

Horri begira, ikastolok Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publiko berriak izan beharko lituzkeen oinarriak proposatu izan ditugu: 2014. urtean egindako topaketetan aurkeztu genituen, eta berriki BIHAR prozesuan berretsi ditugu. Proposamenak egungo Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren birformulazioa dakar, publikoaren kontzeptutik beretik abiatuta.

EREDU DESBERDINAK EUROPAN

Europan Hezkuntzaren publikotasuna ulertzeko modu eta eredu desberdinak daude, eta pisu desberdina dute administrazioen titulartasuneko ikastetxeek eta herri ekimenetik sorturikoek edota erlijiosoek.

Irlandaren eta Herbehereen kasuak aipagarriak dira. Datu ofizialetan, Irlandan eskola publikoa ia %100 dela esaten da eta Herbehereetan %89. Kontua da, ordea, Irlandan eskola ia denek jabetza eta kudeaketa ez direla erakunde publikoenak, estatuak ia osorik finantzatuak izan arren; eta Herbehereetan, finantzazio publikoa jasotzen duten ikastetxe guztiak publiko gisa zenbatzen dituztela (titularra administrazioa, kasu honetan udalak, izan ala ez izan), administrazioarenak ez diren ikastetxeak %66 izan arren. Alegia, publikotasuna definitzeko beste modu bat dutela Irlandan eta Herbehereetan.

Bi herrialde hauekin batera, administrazioen titulartasuneko ikastetxeek pisu gutxiago dute

Erresuma Batuan (%38 dira), Letonian (%41) eta Belgikan (%43), eta azken honetako Flandria eskualdean, are gutxiago (%30). Letonian izan ezik, beste herrialdeetan finantzazio publikoa jasotzen duten ikastetxeak gehiengo dira (%53, %7, %56 eta %68).

Finlandian eta Suedian eskola publikoak pisu handia du, %82 eta %86, hurrenez hurren. Gainerako eskolek –nahitaezkoa dute irabazi asmorik ez edukitzea– finantzazio publikoa jasotzen dute, %100ekoa, eta doakotasuna bermatzen dute horrela.

Aipatzekoa da, era berean, Europako herrialde askotan, udal gobernuek kudeatzen dituztela ikastetxeak (deszentralizazioa eta tokiko erakundeentzako partaidetza) eta ikastetxeek berek kontratatzen dituztela irakasleak (zentroen autonomia). Bost herrialdeetan irakasle zerrendak erabiltzen dira kontratazioarako; alegia, administrazioak zerrendak argitaratzen ditu eta ikastetxe bakoitzak horietatik kontratatzen du bere langileria. Beste hamasei hezkuntza-sistematan ikastetxeak dira irakasleak kontratatzearen erantzule zuzen eta eskusiboa. Beste bederatzi sistematan, berriz, tokiko administrazioak, hau da, udalak arduratzen dira gai horretaz eta beste bost sistematan (Espainia eta Frantzia horien artean) oposizioen bidez kontratatzen dituzte langileak. Beraz, ez dugu zalantzan jarri behar zerbitzu publiko baten aurrean gaudela, baizik eta zerbitzu hori nola antolatu eta Administrazioak nola erantzun behar dion bere ardura horri. Ikusi dugun bezala era asko daude, ireki dezagun, bada, begiak, eta egin ditzagun proposamenak gure helburuak lortzeko egitura egokiak bilatuz, baina etorkizunari begira, iraganak ez ditzan baldintzatu gure gizartea eta seme-alabak ondo hezteko egitura egokiak.

HEZKUNTZA ZERBITZU PUBLIKOAREN OINARRIAK

Izan ere, ikastolok publikotasuna “publiko-herritar” ikuspegian kokatzen dugu, ez diogu ikastetxearen titulartasunari lotzen, komunitateari baizik, hezkuntzan ere demokrazia parte-hartzailea gauzatzeko. Beraz, **ikastetxe bat publikoa izateko ez da ezinbesteko baldintza titularrak administrazioa izatea**; aurrekoan aipatu dugun bezala, formula asko daude eta ikastolok horietako batzuen alde egiten dugu.

Administrazioak gertu egon behar du komunitate logiketatik sortzen diren ekimenetan laguntzeko, prest egon behar du hainbat zerbitzu publiko **irabazi asmorik gabeko** gizarte ekimen zibilen bitartez kudeatzeko ere. Haatik, aldi berean, gizarte zibilak garatzen dituen ekimen horiek administrazioaren baimena eta ikuskapena behar dute eta, gainera, zerbitzu publikoen kudeaketaz ari garenez, programatzeko eta koordinatzeko eskumena ere badagokio. Hots, erakunde horiek administrazioaren plangintza orokorraren esparruan jardun behar dute.

Baina hori edozein gizarte eragilek gauza dezake? Alegia, Hezkuntzan aritzen den edozein gizarte erakunde “Hezkuntza Publiko Sistemaren” barruan koka daiteke? Gure ustez ez.

HEZKUNTZA ZERBITZU PUBLIKOAN PARTE HARTZEKO, IKASTETXEEK BALDINTZA BATZUK BETE BEHARKO LITUZKETE:

- Ikasle guztiak onartzea eta hezteak, bazterkeriarik gabe.
- Demokratikoki kudeatuta egotea; Hezkuntza komunitatea osatzen duten estamentu guztien partaidetza ziurtatu behar dute, erabakitze ahalmena guztien esku egon behar da eta erabakitze organo nagusiak demokratikoki antolatuak.
- Autonomoak izatea: beren hezkuntza proiektua egiteko eta garatzeko, beren barne antolaketa definitzeko eta beren baliabideen kudeaketa propioa izateko, aurrekontu propioak edukitzeko.
- Jasotzen dituzten funts publikoen erabilera adieraztea, euskal hezkuntza sistemak ezarritako hezkuntza helburuak aintzat hartuz eta gardentasunez erabiltzeko konpromisoarekin. Bigarren konpromiso hau betetzeko, kontuen ikuskaritza egingo dute, eta ikuskaritza eskatzeko eskumena duten organoen aurrean aurkeztuko dute.
- Ideologikoki anitzak eta laikoak izatea. Ikastetxeek baztertu egin behar dute “doktrinamendu” jarrera, eta elkarriketa eta elkarrenganako begirunea sustatu behar dute.
- Beren funtzionamendua ezagutzeko eta hobetzeko, kanpoko eta barruko ebaluazio prozesuak egitea: alde batetik, hezkuntza helburuen egokitasuna neurtzeko, ikasle bakoitzaren ahalik eta hezkuntza garapen handiena lortzeko, eta, bestetik, beren baliabideen erabilera aztertzeko.
- Hezkuntzako langile guztien kontratazioak hezkuntza eragileen parte-hartzea bermatuko duten ikastetxe bakoitzeko batzordeetan egitea, berdintasunean, merituaren eta ahalmenaren oinarritutako hautaketa prozesuen bitartez. Era berean, kaleratzeen kasuan ere hezkuntza eragileen parte hartzea eta prozesu kontraesankor bat izatea bermatuko dira. Hautaketa sistemaren fase desberdinak, deialdi publikoa, ikastetxe bakoitzaren baremazioa... zehaztuta egongo dira.
- Euskararen eta euskal kulturaren eta izaeraren transmisioa eta ezagutza bermatzea.
- Ekonomia ekitaldi batean emaitza positiborik sortuz gero, horiek ikastetxea hobetzeko edo/eta zeregin sozialetarako erabiltzea. Elkarte titularra desagertuz gero, bere ondarea hezkuntza administrazioaren eskuetan uztea.
- Euskal Curriculumaren transmisore izatea.
- Euskal Herria bere osotasunean lantzea.
- Hemen zerrendatzen diren baldintza guztiak gehiago zehaztu beharko lirateke (ikastolen Endekalogoak dokumentuaren barruan zehaztuta dauden bezala), baina idatzi honetan ideia nagusiak aipatu ditugu.
- Laburbilduz, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoak bildu ahaliko dira funts publikoekin hornituriko ikastetxeak, hots, ikastetxe publikoak, ikastolak eta itunpeko ikastetxeak, bakoitzaren nortasunari eutsita eta eskubide eta betebeharrak berekin, hezkuntza zerbitzuaren ezaugarriak beteko dutenak eta ikasle guztien hezkuntza eskubidea, inolako bazterkeriarik gabe, bermatuko dutenak. 2014an esan eta berriki berretsi dugun moduan, Hezkuntza Sistemaren eta bertan diharduen ikasleriaren beharrei bidezko erantzuna emateko ezinbestekotzat jotzen dugu hezkuntza-baliabideen banaketa zuzena egitea. Ez dago ekitatez ikasleen beharrei erantzuterik, baliabideen banaketa ez bada bidezkoa. Halaber, ikastolak behin baino gehiagotan aldarrikatu dugu, gu gauden eskola-eremu bakoitzean, edozein beharrian bereziko ikasleen eskolatzean gure matrikulazio tasaren neurriko konpromisoa hartzeko prest gaudela.



PROFICIENT EUROPAKO STEM LABELA OSATU DUGU

*2021/22 ikasturtean Scientix-ek antolatutako
eskala txikiko proiektuen pilotajearen parte hartu ondoren*

Europako STEM Labela izeneko ekimenaren baitan, Scientix-ek eskala txikiko proiektu pilotuak antolatu ditu Europako sei herrialdeetan, STEM labela hedatzeko. Lau ikastolak parte hartu dugu, emaitza bikaina lortuz: Lautadak, Altsasuk, Kurutziagak eta guk, Haurtzarok.

STEM School Labela (ikastetxeetako zientzia-teknologia ikasarloen gaitasun zigilua) [European Schoolnet](#)-en baitako [Scientix](#)-en ekimena da. Hain zuzen, STEM gaietan (*Science, Technology, Engineering and Mathematics*; zientzia, teknologia,

ingeniaritza eta matematika) ikastetxeen lan pedagogikoa diagnostikatzen laguntzeko, aitortzeko eta bikaintasuna bultzatzeko.

Ekimena Europako sei lurraldetan gauzatu da, Euskal Herria barne. Bertan, Bruselako lan taldearen koordinazioarekin, hiru Scientix enbaxadorek (Arantzazu Fernandez de Arroiabe Idigorasek, Karmele Blanco Etxeberriak eta Erramun Martiarena Sarasolak) beren ikastetxeen ziurtapen/zertifikazio prozesua gidatu dute eta STEM Eskola Labelaren prozesuan trebatu nahi zuten sareko beste



Curriculum, ikasleen konpetentziak garatzeko PBL eta IBSE metodologia aktiboak eta kooperatiboak, EKI unitate didaktikoen erronkak, digitalizazio lan guztia, ebaluazio hezigarria, baliabideak eta azpiegiturak, diziplinartekotasuna...

ikastetxe batzuei ere tutoretza eman zieten, 2022ko udaberrian eta udan.

Irakasleek eta ikastetxeko gainontzeko langileek ahalegin bikaina egin dugula esan daiteke, emaitzen arrakasta aztertzen badugu: **Hautzaro Ikastolan Proficient mailako gaitasun labela** lortu dugu, eta Lautada, Kurutziaga eta Iñigo Aritza ikastolek *Competent* mailakoa, teknozientzia arloen hezkuntzan egiten duten lana aztertuta.

Euskal Herrian, Irlandan, Kroazian, Letonian, Maltan eta Txekiar Errepublikan, 16 Scientix enbaxadoreren gidaritzarekin, **guztira 37 ikastetxek lortu dute oraingo txandan Competent mailarainoko labela, eta bi ikastetxek, berriz, Proficient goi-mailako etiketa, tartean Hautzarok**. Euskal Herrian, hauexek dira *Competent* gaitasun labela lortu duten zortzi eskola eta ikastolak, STEM estrategiak hobetzeko duten konpromisoaren adierazgarri:

1. Gurutzeta HLHI
2. Zaldupe HLHI
3. San Martin HLHI
4. Lautada Ikastola
5. Kurutziaga Ikastola
6. Iñigo Aritza Ikastola
7. Orokieta Herri Eskola
8. Iturzaeta HLHI

Hezkuntzan aurrera egiteko, albiste pozgarria. Guztioi, zorionak!

Hezkuntzan aurrera egiteko, albiste pozgarria. Guztioi, zorionak!

• Zer da STEM School Labela (SSL)?

European Schoolnet erakundeak garatutako proiektua da, diagnostikoaren eta zertifikazio prozesuen bitartez, europar ikastetxeei zientzia-teknologia ikaslaroetan edo STEM hezkuntzan urratsak egiten laguntzeko.

STEM School Labelaren **helburua**, Europako ikastetxeak gidatzea da, beharrezko tresnak eskainiz, STEM estrategia eguneratua eta egokia gara dezaten, ikastetxe osoaren autodiagnostikotik abiatuta, hainbat maila dituen akreditazioa eskaintzeraino.

• European Schoolnet erakundea (EUN)

European Schoolnet Europako 34 Hezkuntza Ministerioren sarea da, egoitza Bruselan duena. Irabazi asmorik gabeko nazioarteko erakunde gisa, irakaskuntzako eta ikaskuntzako eragile nagusiei berrikuntza helarazten saiatzen da, zehazki: hezkuntza ministerioei, ikastetxeei, irakasleei, ikertzaileei eta industria-bazkideei.

Horretarako, EUNek XXI. mendeko hezkuntza inklusiboarekin loturiko hezkuntza praktika berritzaileak eta itxaropentsuak identifikatu eta probatzen ditu, haien eraginari buruzko frogak partekatuz.

1997an sortu zenetik, European Schoolnet-ek hezkuntza ministerioekin dituen loturak erabili ditu ikastetxeei teknologien erabilera pedagogikoan eraginkorrak izaten laguntzeko, eta irakasle zein ikasleei gizarte digitalean lortzeko beharrezko trebetasunak eman dizkie.

• LABELak adierazten duena:

- . Diagnostikoa STEM hezkuntzan: indarguneak eta ahuleziak
- . Ikastetxea Scientix sarearen parte izatea
- . Europako STEM ildoaren bidea ongi egitea, hobekuntzarako konpromisoa/aukera
- . Ikastetxeak arlo honetan egindako lanaren aitortza, eta prestigioa

STEM ikuspegitik prozesuan **Europatik baloratu dizkiguten ezaugarriak edo parametro pedagogikoak**:

Curriculum, ikasleen konpetentziak garatzeko PBL eta IBSE metodologia aktiboak eta kooperatiboak, EKI unitate didaktikoen erronkak, digitalizazio lan guztia, ebaluazio hezigarria, baliabideak eta azpiegiturak, diziplinartekotasuna...

02. BERRIKUNTZAK



• STEM School-en labelaren balorazioa honako 7 blokeen inguruan egin dute:

1. IKAS-IRAKASKUNTZA PROZESUA

Euskal Curriculumean eta konpetentzietan oinarrituriko EKI proiektuaren baitan ikaskuntza pertsonalizatua garatzeko ikaskuntzarako diseinu unibertsalaren (IDU) erabilera da ebidentzietako bat, hau da, aniztasunaren trataeran eta inklusioa bermatzeko tresnaren erabilera. Bestetik, PBL proiektu eta problemen bidezko ikaskuntza ere kontuan hartzen da atal honetan. Horren adibide da urtero LH3 eta DBH3ko ikasleen artean lantzen dugun Ekimaker proiektua. Azkenik, IBSE indagazioan oinarrituriko hezkuntzaren erabileraren ebidentziek bere tokia hartzen dute, horretarako, ikasgelako ikerketatxoek gain, jarduera osagarri desberdinak baliatzen ditugu.

2. CURRICULUM EZARPENA

Konpetentzietan oinarrituriko KIMU eta EKI proiektuen garapena ezinbestekoak dira ikastolako hezkuntza proiektua garatzeko garaian, 6-16 urte bitarteko ikasleen hezkuntza garapenean eraginez. Gainera, nabarmendu beharra dago, labelak mahai gaineratzen duen testuingururatuak hezkuntzaren adibide garrantzitsua ere badirela, izan ere, esperientzia eta bizipen errealetan oinarritutako konpetentzietan baitu abiapuntua. Bestetik ere, diziplinarteko proiektuen lanketa ahalbidetzen dituzten proiektuak izateak bete-beteko lotura du STEM proiektuetan.

3. IKASKUNTZA EBALUAZIOA

Kalifikazio hutsa alde batera utzi eta ikaslea erdigunean jarri, ebaluazio hezigarria eta pertsonalizatua oinarri duen ikaskuntza jarraia izatea dira giltza. Prozesu horretan, ikasleek ere autorregulazio prozesuak izaten dituzte haien buruak ebaluazio prozesuaren garapenean zein puntutan kokatzen duten identifikatzeko.





4. IKASTETXEAREN AZPIEGITURAK

IKT konpetentzia era integratuan EKI proiektuaren eskutik lantzeak eta ekipamendu teknologikoak erabiltzeko ikasleei eskaintzea dira nabarmentzekoak. Jakina, heldutasun teknologikoaren bidean ikastolok elkarrekin egindako bideak oinarri sendoa eskaini du.

5. LIDERGOA

Ikastolen praktika onen jardunaldietan ikastolan egindakoa aurkeztea edo zuzendaritzak STEM arloak garatzeko ikastolan hartutako konpromisoak nabarmentzekoak dira aztertutako atal honetan.

6. LOTURAK ETA HARREMANAK

Hautzaro Ikastola Oartzungo eta Oarsoaldeko eragile den heinean, zonaldeko beste eragile askorekin harremanak sustatzea beti izan du helburu. Horren adibide litzateke Petra Lekuona egoitzarekin dugun harremana eta egiten ditugun ekintzak. Harremanen adar garrantzitsu bat ere, noski, familiak dira eta seme-alaben hezkuntza prozesuan etengabe planteatzen diren ekintza desberdinen antolaketa partaide izatea; HH eta LHKoko ikasleei bisita eginez haien lanbideen inguruko azalpenak ematea, ikastolen adierazle garbi bat den auzolana, Ikastola Eguna antolatzea...

7. HEZITZAILEEN PROFESIONALIZAZIOA

Pedagogia eraldatzaileen aurrera eramateko inplikazioa eta formazioa, klaustrokide guztien profesionalizazioan oinarritzen da, dudarik gabe. Hautzaro Ikastolan argi ulertzen baitugu etengabeko formazioa dela etorkizuneko hezkuntza eguneratzeko bidea.



03. IRAKASLEAK



FORMAZIO SAIOAK HH ETAPAN

Azken urteetan HH etapako profesionalek, Urmendikoek eta Haurtzarokoek, formazio saioa egin ohi dugu elkarrekin. Etapa bateko eta besteko haurren ezaugarriak oso ezberdinak diren arren, hainbat gai elkarrekin lantzeak ikuspegi bateratua edukitzea ahalbidetzen digu, eta elkarlanerako bideak errazten dizkigu.

Aurten landutako gaia *HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOAREN GARAPENA* izan da, eta gurekin izan dugu Irati Iriarte logopeda, gai horri buruzko azalpenak ematen.

Bi saioetan zehar komunikazioaren garapenaz aritu ginen, elebakar, elebidun edo eleaniztasunaren arteko ezberdintasunez; alerta seinaleak zeintzuk diren antzemateko informazio baliagarria eskuratu genuen, horiek agertzean nola landu, eta noski, jardun genuen baita ere prebentzioaren garrantziaz eta horretan irakasleok dugun paperaz.





Argi geratu zitzaigun hizkuntzaren garapena haurra umetokian dagoela hasten dela, orduan antzematen baitu inguruan entzuten duen hizkuntzaren doinua.

Behin jaiota, hasi-hasieratik komunikazio bideak lantzen dira umearekin hitz egitearen, jolastearen eta abestien bitartez, eta badaude hilabetez hilabete haurrak barneratu beharko lituzkeen lorpenak. Esaterako, zazpi hilabeterekin soinuaren konbinazioak egin beharko lituzke; 2 urterekin 50 bat hitzetako hiztegia behar luke; hiru urterekin hizkuntza autorregulazio tresna gisa erabiltzeko gai izan behar luke; eta bost urterekin narrazio txikiak egin beharko lituzke.

Aipatu adinetako adibide zehatzak dira horiek, eta noski, beste hamaika irakaspen eta konpetentzia behar ditu hizkuntza komunikazio garapen egokia izan dezan.

Bistan da hizkuntza komunikazioaren garapenean hitza erabiltzea oinarritzkoa dela, hori lortu aurretik, ordea, haurrak komunikatzeko gogoia edukitzea ezinbestekoa da. Horretarako, umearekin dauden helduen papera oso garrantzitsua da: hori egon behar dute, haurraren espresio bideei kasu egiteko, erantzun bat emateko eta imitazioa bultzatzeko.



Aurten landutako gaia **HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOAREN GARAPENA** izan da, eta gurekin izan dugu Irati Iriarte logopeda, gai horri buruzko azalpenak ematen.

04. GURASOAK

Gustura egon zara?



GURASO ORDEZKARIEN FOROAREN ERAIKUNTZA KOLEKTIBOA

Iaz aipatu genuen ikastolaren oinarrietako bat familien partaidetza zela, eta partaidetza horren gunea geletako Guraso Ordezkarien Foroa.

Foro hau, partaide kopurua eta aldaketak medio, zaila zen dinamizatzea eta aldaketa bat behar genuen.

Hori dela eta, prozesu parte-hartzaile bat jarri genuen martxan 3 helburu nagusirekin:

- Ordezkarien zereginak eta komunikazioa zehaztea.
- Parte-hartzea sustatzea.
- Gune kolaboratiboa eta kooperatiboa elkarrekin eraikitzea.



• ZER LORTU DUGU?

- Gure artean ezagutzea. Elkar ezagutze horrek konfiantza gune bat sortzea ekarri du, hasieran zaila izan bazen ere, ikasturte bukaeran aldaketa nabaritu zen, jendeak errazago eta gehiago parte hartzen zuen.
- Funtzionamendurako txostena sortu dugu.
- Talde eragile baten beharra ikusi eta eratu dugu.
- Zenbait guraso ordezkari kontzientziatu da parte hartzearen beharraz, hau da, gurdia hor dagoela baina norbaitek tira behar duela zerbait egin nahi badugu.
- Gaiak lantzeko modu berri bat probatu dugu, orain arte ez bezala, bertikalean landu beharrean denon parte hartzearekin horizontalean lantzea lortu dugu. Honen adibide garbia gure seme-alabei sakelakoa erosteko garaia atzeratzeko egin den lanketa dugu, taldetxo batek hartu zuen honen ardura eta egindako lana txalotzekoa eta eredugarria izan da. Ikasturte hasieran galdetegi bat pasatu genuen Guraso Ordezkarien Foroan lantzeko gaiak jasotzeko eta orain gai horiek lantzeko inplikazioaren bila goaz.

Beraz, orokorrean, nahiz eta ezin esan %100ean izan denik, jarritako 3 helburuak lortu ditugu.

Talde eragilearen figura oso garrantzitsua da, baina zailtasunak ikusten genituen: figura berri bat zen, bete beharrak zehaztu behar ziren... eta talde horrek behar duen babesa emateko, formazioa jasotzen ari da. Eginez ikasten delako, lehenengo urteak ikasteko eta probatzeko urteak izango dira, eta helburua egonkorra izatea izango da.

Bilera guztiak balorazio batekin bukatzeko ohitura dugu eta prozesuaren amaieran parte-hartzaileei galdetegi bat pasatu genien. Balorazio mota ezberdinak jaso genituen, baina orokorrean iritziak positiboak izan ziren:

- *Gurasoen ikuspuntu orokorra aldatzen doala pentsatzen dut.*
- *Elkar gehiago ezagutu heinean konpromiso eta parte hartze handiagoa dago taldean.*
- *Ilusioa ikusten dut, iraun dezala!*
- *Hasieratik bukaerara jendeak gehiago parte hartu du hitz egiterakoan.*
- *Konfiantza giroa sortu da.*
- *Parte hartze gehiago.*
- *Ikastola orain gertuago sentitzen dut eta partaideago sentitzen naiz.*
- *Gustura nago atera diren gaietan erabakiak hartzen parte hartu ahal izateaz, eta hurrengo urtean jarraitzeko gogoarekin.*
- *Ikuspuntu positiboagoa bilerez.*

Hobetearren, kritikak kontuan hartuko ditugu, eta talde eragile berri honek ilusioz eta indarrez jarraituko du foro hau dinamizatzen eta lanean.





JANTOKIAN BESTE PAUSO BAT GEHIAGO

Urmendi aitzindaria izan da jangelako menuetan eredu osasuntsuago eta jasangarriago baten alde egiterakoan. Duela hamar bat urte, Ekolapiko elkartearen laguntzarekin barazki, fruta, lekari eta zereal ekologikoak txertatzen hasi ginen. Garai hartan, gainera, gurasoek eta irakasleok formazio eta sentsibilizazio saioak era jaso genituen.

Bigarren pausoa duela bizpahiru urte eman genuen. Libe Garmendia nutrizionistaren gidaritzapean, eta pediaren gomendioak jarraituz, haurren elikagai beharrak aztertu, eta behar horiekin guztiz bat egingo zuen menua birdiseinatu genuen. Hori horrela, esaterako, hamaiketako gailetak baztertu genituen, jogurtak azukrerik gabe eskaini, lekari gehiago sartu eta haragia gutxitu...

Azken pausoa, martxan jarri berri duguna, Lur-bizi egitasmoaren baitan kokatu behar dugu. Oiarzungo Udalak lehen sektorea biziberritzeko sortutako egitasmoa da Lur-bizi. Horren barruan, Behemendirekin (Landa Garapenerako Elkartea) elkarlanean eta Labore Oarsoren laguntzarekin, hezkuntza zentroetara jo zuten jangelaren balizko transformaziorako azterketa tekniko eta bide-laguntza eskaintzeko asmoz.

Urmendi Haur Eskolaren kasuan, esan bezala, bide horren zati handia egina dago jada. Elikagai ekologiko asko erabiltzen dugulako eta menuak osatzeko ere hausnarketa eta eraldaketa prozesua egina dugulako. **Oraingoan, beraz, hornitzaileengan jarri dugu arreta eta helburua da hornitzaile handiak alde batera uztea (ahal den neurrian), eta inguruko baserritarrekin eta ekoizleekin asetzea Urmendiko elikagai beharrak.**

”

Elikagai ekologiko asko erabiltzen dugulako eta menuak osatzeko ere hausnarketa eta eraldaketa prozesua egina dugulako.

Horretarako, gurean erabiltzen ditugun elikagai guztien zerrenda egin dugu, bakoitzetik kontsumitzen dugun kopurua eta prezioak zehaztuz. Egungo hornitzaileak (Gumendi batez ere), ahalik eta gertuen ditugunekin ordezkatu ditugu.

Aldaketa horiekin bertako baserritarrei eta ekoizleei kontsumitzaile finko bat bermatzeaz gain (horrela haien produkzioa planifika dezakete), egun prezioen gorakadan eragina duten bestelako aldagaiek (erregaien eta energiaren prezioa, esaterako) askoz ere gutxiago eragingo dute azken prezioan.

Produktu batzuk garestiagoak izango dira (azenarioak eta pasta, esaterako), baina beste batzuk merkeagoak (olio ekologikoa, laranja edo lekak). Jogurten kasuan, aipatzekoa da ontzi indibidualak baztertu eta 6 kg-ko ontziak erabiliko ditugula. Horrekin, ehunka plastikozko ontzi ez sortzeaz gain, ontziaren prezioagatik produktuak berak duen prezioa asko jaisten da. **Guztira, menuaren prezioa 14 zentimo besterik ez da garestitu, proiektuaren atzean dagoen guztia kontuan hartuta, huskeria.**

Abenduan hasi ginen hornitzaile berriekekin lanean eta dena primeran doa.

Guztira, menuaren prezioa 14 zentimo besterik ez da garestitu, proiektuaren atzean dagoen guztia kontuan hartuta, huskeria.





ELKARRIZKETA

Rexu Ugaldebere eta Koikile Arruabarrenak pasa den uztailean bukatu zuten beren ibilide profesionala Urmendi Haur-Eskolan. Hilabete batzuk gero, elkarrizketa hauxe eskaini digute.

- Zer moduz doakizue bizimodu berria?

Oso ongi. Lanean geundela, aisialdirako genuen denbora murriztagoa zen, eta orduan egiten ez genituen ekintzak egiten gabiltza.

Haur eskolako kezkarik gabe! Batez ere ikasturte hasierako egokitzapenari dagokionez. Izan ere etapa hau oso garrantzitsua da haurrarentzako eta irakasleok presio handiarekin bizitzen dugu. Adinean aurrera joan garen honetan urtetik urtera zama handitzen zela sumatu dugu eta aurten, gure lankideekin eta haurrekin askotan oroitu garen arren, lasai egoteko aukera izan dugu.

- Kontatu zuen hastapenak eta bizipenak lanbide honetan?

Gure hastapenak:

R.U: 1978. urtean Karrikako Iturburu eta Oreretako haur eskolan ordezkapenak egiten hasi nintzen. 1980. urtean, Donostiako Egia auzoko haur eskolan 2 urtez egin nuen lan. Geroztik Iturburu haur eskolan; 1999. urtean Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa sortu zen arte eta gaur arte bertan!

K.A: Karrikako Iturburu haur eskolan hilabete batzuk praktikak egin ondoren, 1981. urteko urrian Iturriotz auzoan haur eskola bat ireki nuen. 1999. urtean, lehen aipatu dugun bezala O.U.I.P. sortu zen eta geroztik bertan egin dut lan.

Gure hastapenetatik lanbide honetan gustura sentitu gara eta familiarekin, gure haurrekin, lankideekin (hezitzaile, sukaldari, garbitzaile...) harreman sendoak eraiki ditugu. Orokorrean, lanbide honi asko eman diogu, baina jaso ere asko egin dugu. Momentu zailak zein oso politak bizitu ditugu.

- Non eta noiz egin zenuten topo zuen ibilbidean?

Biok Iturriotz auzoan jaio ginen, beraz betidanik ezagutzen genuen elkar. Garai hartan Oiartzunen hiru haur eskola zeuden, baina O.U.I.P. sortu zenean hor egin genuen topo eta orain arte elkarrekin lan egin dugu.

- Zer suposatu du zuentzat 0-3 adin tartean lan egiteak?

Betidanik haur txikien munduarekiko interes handia izan dugu. Etapa honek bere zailtasunez gain bizipoz handia eman digu.

Oso gustura egin dugu lan etapa honetan!

- Aldaketarik sumatu duzue ziklo honetan zuen ibilbidean zehar?

Bai, asko!

Alde onak eta ez hain onak. Ibilbide luze honetan, haurrari beste ikuspuntu batzuetatik begiratzen ikasi dugu, eta etapa honek duen garrantziaz jabetu gara, baina urte hauetan gizartea asko aldatu da. Gaur egun helduok beti prisaka gabiltza eta egungo gurasoak bizi diren abiadurak ez du haurren garapenean laguntzen. Gaur egun gaixotzeko eskubiderik gabe bizi dira gure haurrak, patxadaz behar dutena entzun gabe, gizarte honetan haurrak ahalik eta azkarren handi bilakatzea nahi dugu eta gure iritziz, haurrak izaten eta beraien erritmoak errespetatzen ikastea beharrezkoa da. Guk egokitu behar dugu beraien erritmoetara eta ez haurrak gizarte honetako helduok dugun erritmo azkarrera.

- Nolako 0-3 zikloa amesten duzue?

Uff!

Hezkuntza aldetik ziklo honek duen garrantziaz jabetzea gustatuko litzaiguke. Izan ere, Haur Hezkuntza etapa 0tik 6 urte bitarte da, baina 0-3 etapan lan egiten dugun irakasleok ez ditugu 3-6 etapan lan egiten dituztenen eskubide berak. Bi etapetan lan egiteko titulazio bera behar den arren baldintza desberdinak daude.

Eskola txikiak nahiko genituzke, ratio txikiagoekin, haur bakoitzari behar duen denbora eskaintzeko aukera izatea gustatuko litzaiguke. Eskola txikien inguruan naturarekin harremanetan egoteko guneak nahiko genituzke. Eta noski, doakoa izatea.

- Bukatzeko zerbait gehitu nahi?

Ziklo honetan oso gustura ibili gara, eman dugun eta jaso dugun guztiarekin asetuta gaude.

Betiko guregan geldituko dira OROITZAPEN horiek. Eskerrik asko.



HATZAK BETE LAN

HH3

EGOKITZAPENA

Aurten ere iritsi dira 3 urteko haurrak ikastolara eta honekin batera egokitzapen garaia; familiekin batera elkarrekintzan, elkarrekin eta elkarlanean egiten duguna.

Egokitzapena ez da prozesu lineala, eta haur bakoitzak bere erritmoa duen heinean, bere egokitzapen prozesua du. Testuinguruaren arabera eta zehazki helduek emango diegun erantzun sentikorren arabera, haur guztiek irakasleekin atxikimendu segurua eraikitzea du helburu.

Marko berri honetan, kanpora irteera zuzena izateaz gain, espazio zabalagoak ditugu, maila mikro-txokoetan banaturik dugu: espazio sinbolikoa, espazio-sensomotorea, eraikuntza txokoa, ipuin txokoa, adierazpen plastikoena... Eta haurra da bere garapen prozesuaren protagonista.

Haurra gelara sartzen den momentutik, zirkulazio autonomoan dagoen momentutik, erabakitzen hasten da. Helduengana hurbilduko den edo beste haur batengana joko duen erabakitzen du, ekintzan zentratuko den edo harremanetan. Berak erabakiko du irakasle erreferenteak jarri dizkion materialetatik zein manipulatu duen.

Helduak, berriz, prozesu honen bidelagunak gara eta haurren beharretara egokitutako baliabide, espazio eta materialak eskaintzen dizkiegu, elkarrekintzan, bizitzarako hezkuntza den honetan lora daitezen.



HH4

MATEMATIKA, BIZIPENETATIK

Haur Hezkuntzan, ikasleen pentsamendu matematikoaren garapena sustatzeko, egunero sortzen diren egoera errealez baliatzen gara, horiek baitira motibazioa eta interesa pizten dutenak. Hasierako matematika "informala" bizi esperientzietatik jasotakoa da, eta hori barneratzea ezinbestekoa da datozen urteetan matematika "formalaren" oinarri sendoa eraiki ahal izateko.

Azaldutakoa gauzatzeko, egunerokotasunean ikasleak protagonistak diren gertuko bizipenak erabiltzen ditugu. Hauen adibide dira hamaiketakoaren banaketa edo ipuin kontaketa.

Hamaiketakoaren banaketa

Egunero haur bat arduratzen da taldekideei hamaiketakoa eskaintzeaz. Horrek, jolasaren bidez, matematika lantzeko aukera ematen digu: sailkapenak, kopuruak, seriazioak, etab. *Zenbat fruta mota ekarri ditugu gaur? Taldekaturik ditugu? Nola? Zenbat daude bakoitzetik? Zer dago gehiago?*

Egun batean, fruta brotxetak egin genituen. Fruta mota bakoitzeko bi zati hartu behar zituztela eta hauek brotxetetan nola kokatu adostu ondoren, ikasleek seriazioak egin zituzten. Esperimentazio hau bukatzeko, egindakoaren errepresentazioa egin zuten.



Ipuin kontaketa

Ipuin kontaketa ikasleentzat egunerokotasuneko ekintza erakargarrienetako bat da, hainbat gai lantzeko abiapuntua baita.

Beldarraren ipuina aitzakiatzat hartuta, matematika lantzen aritu gara: zenbaki ordinalak, ordenatzea... *Zer jan zuen lehenengo egunean? Bigarren? Hirugarrenean?... Zenbat marrubi jan zituen? Zenbat aran?* Bukatzeko, ekintzaren errepresentazioa marrazki baten bidez egin zuten.

06. HATZAK BETE LAN

HH5

Ipuin Txokoa



Lehenengo hiruhilabetea ziztu bizian joan zaigu, buru belarri ekintza eta esperientzia berrietan murgilduta ibili garelako. Udazkenaz gozatu dugu; mendian barrena, sagardoaren prozesua ikusiz edota gaztainak bilduz. Gure herria hobeto ezautzeko aukera ere izan dugu: txokoak, eraikinak, mendiak edota pertsonaia famatuak.

Honekin guztiarekin batera bada astero oso gustukoa dugun hitzordu bat: Ipuin Txokora bisita. Bertan dauden ipuinak bakarka, lagunekin edo irakaslearen laguntzaz deskubritzeko aukera dugu. Milaka istorioetan murgiltzen gara. Gainera, bi astetik behin proposamen berriak eta argitalpen berriak topatzen ditugu egurrezko atril txiki baten gainean. Liburu berezi hori ozen irakurri, antzeztu, komentatu, filosofatu... egiten dugu. Irudimena dantzan eta hegan jarritz primeran pasatu eta izugarri gozatzen dugu!



Bideoa:

<https://youtu.be/v9TeuK6830w>

LH1

Esperimentatu, sortu eta jolastu!

Gorputz Hezkuntza saioan JOLASA unitatearekin aritu gara lehen hiru hilekoan. Barrutik kanporako bidea egin dugu etengabe.

Bakoitzaren beharretatik besteen nahietara...

Naturak eskaintzen dizkigun espazioetatik artifizial zein estandarizatueta...

Material organikoetatik bestelakoetara...

Saio hauetan guztietan sortutako jolasak erregistratu eta liburuxka ederra sortu dugu.

Gero, azken proiektu gisa, norberak sortutako jolasetako bat gorpuztu eta taldeari eskaintzeko aukera izan dugu ikasleok. Irakasle paperean jarri eta saio jostariak atera dira zinez!

Unitatea borobiltzeko, LH4. mailako ikasleek, maitasun osoz guretzat sortutako jolasak eskaini dizkigute. Gure eremuko plazan egin dugu topaketa eta oso momentu polita izan da. Mila esker gutako bakoitzari, mailakideoi eta LH4. mailakoei!

4, 3, 2, 1... JOLASTERA!



06. HATZAK BETE LAN

LH2

Origami animaliak

Kaixo lagunak!

LH2. mailako lehen hiruhilekoan animalien munduan murgilduta ibili gara. Euskal Herrian bizi diren animaliak zein diren ikasi dugu, Oiartzunen zein animalia ditugun behatu dugu eta animalia horiei buruzko bitxikeriak ikusi ditugu.

Animalien munduan sarturik, Japoniaraino bidaiatu dugu eta bertan asmatutako origami teknikarekin orriak tolestuz animaliak egiten ikasi dugu: igelak, azeriak, txoriak, arrainak..

Animalia horiek beraien bizitokietan kokatuaz artelanak sortu ditugu, ikusi nahi?



LH3

LH3 mailakoen DENDA

Aurtengo ikasturtean LH3. mailakook **3 denda** antolatu ditugu. Denda horietan Gabonetako apaingarriak sortzeko materiala erosteko aukera izan dugu eta, gero, erositakoarekin, bakoitzak gure apaingarriak sortu ditugu.

Dendan materiala erosteko irakasleek ikasle bakoitzari 8 euro eta 80 zentimo eman dizkigute billete eta txanpon desberdinetan. Hau guztia, gure diruzorroan gorde dugu.

Saio batean dendariak izan gara. Dendariak izan garenean honetan aritu gara: materia antolatu, saldutakoaren zerrenda osatu, prezioak buruz ikasi, kalkuluak egin...

OSO DIBERTIGARRIA IZAN DA.

Balorazioa oso positiboa izan denez ea berriz beste denda bat antolatzen dugun.



06. HATZAK BETE LAN



LH4

Jolasak opari, opariak leiho

Jolasa da EKI ikasmaterialeko 2. unitatearen gaia, eta jolasean pasatu genituen oporren aurreko azken asteak: betiko jolasekin, jolas horien aldaerekin, jolas berrieekin... Estrategiez, materialaz, arauz, irabazteaz eta galtzeaz... hausnartu

ondoren, oparitzeko moduko jolasak sortzeari ekin genion, gaiari amaiera eder bat emateko.

Alde batetik, LH1. mailako ikasleentzat jolasak asmatu genituen, eta haiengana joan ginen jolasak azaltzera eta probatzera. Oso ikasle jatorrak eta esker onekoak dira, eta primeran pasatu genuen beraiekin jolasean!

Eta, bestetik, galdera filosofikoak ere sortu genituen, lagun ezkutuaren bidez gelan elkarri oparitzeko. Galdera horiek leiho baten barruan jaso genituen, oporretan zehar gertukoekin elkarriketa interesgarriak sortzeko. Galderak oparitu genizkion elkarri; leiho berriak pentsamenduari.



LH5

Gelako ikaspen eta bizipenak etxekoei erakusten

Iritsi da azkenean gogo biziz espero izan dugun unea. Urduritasun asko eta entsegu mordo baten ondoren egin dugu familiei zuzendutako emanaldia. Aurkezpenak egin ondoren ezarriak prestatu ditugu gelako bertsoa abestuz. Ahotsa prest genuela kontatu diegu ingurunean ikasitako: lurra mugimenduan dago etengabe eta horrek sortzen ditu egunak, gauak eta urtaroak. **Mugimendu motelak baino behar bizitzarako ezinbestekoak!**

Euskarako arloan kultura landu dugu eta horregatik azaldu ditugu Euskal Herriko ospakizunak eta sinboloak. **Nor garen ulertzeko nor izan garen jakin behar!**

Euskaraz ez ezik, gaztelaniaz eta ingelesez ere egin dugu emanaldian, poemak errezipitatzuz eta errimekin gozatuz eta baita gurasoak ingelesezko abesti bat ikasteko saiakerak eginaz ere. **Hizkuntzak elkar ulertzeko tresnak!**

Burua ez ezik, gorputza ere mugitzen dugunez musika arloan dantza koreografia bat prestatu dugu emanaldiari kolore eta alaitasun pixka bat emateko. **Mugimendu eta musika doinuekin ere asko ikasi dugu!**



Une berezi bezain polita izan da bertan ginen guztiontzako, hori dela eta emanaldiari amaiera emateko familiekin batera eskulan bat egin dugu saioaren oroigarri gisa. Etxera eramandako orri banatzaileaz gain, lerro hauekin ere eskertu nahi dugu emanaldian parte hartu izana eta baita amaieran txalo zaparrada luzea eman izana ere!

Eskerrik asko hilabete hauetan egin dugun bidean lagun izateagatik!

06. HATZAK BETE LAN

LH6

Gabonak bai, natura bye-bye!


Gabonak! Erosketak, kaleak eta dendak jendez beterik, koloreak, apaingarriak, argiak, irriak. Oporrak ikastetxean, janari prestaketak etxean, opariak erosi, hartu eta eman: zoriontasuna da nagusi Gabon garaian.

Baina, dirudienez, zoriontasuna ez da Gabon garaiko ekintzen edo jokabideen ondorio bakarra: **hainbeste**

kontsumituz ingurumena zauritzen eta zaborra biderkatzen dugu! Horretaz erreparatzeko eta herritarren kontzientzia eragiteko posterrak sortu eta banatu ditugu ikastolan eta herriko auzo guztietan.

Eta zuk?

Nola jokatzeko duzu Gabonetan?



Bideoa:

<https://youtu.be/vWr5-F864JQ>

DBH1

Unibertsoa

Unibertsoa aztertzen horma-irudiak egin ditugu, unibertsoaren inguruko galderak egiteko.

Antzinetatik unibertsoaren inguruko galderak erantzuten saiatu da gizakia. Zer da unibertsoa?

Noiz hasi zen? Eta hasiera hori baino lehen, zer?

Horiek ez dira egin daitezkeen galderen adibideak besterik, eta zuk beste hainbat eta hainbat egin ditzakezu. Ez da hala?



06. HATZAK BETE LAN

DBH2

Zientzia tailerrean, behatzen eta marrazten ikasten

Zientzia tailerreko ikasleek metodo zientifikoaren urratsetan jardun eta horiek sendotzeko, laborategian ez ezik Txarako basoko ekosisteman ere eskola ugari egin dituzte. Bertan dauden mahaiaak aprobetxatuz, laborategiko lupak eta marrazteko tresnak erabiliz, metodo zientifikoaren behaketan zentratu dira.



DBH3

Laborategian lanean

DBH3ko ikasleek laborategian lanean jarraitu dugu. 1go ebaluazioan zortzi esperientzia egin ditugu: bost fisika kimika arloan eta hiru biologia arloan.

Ikusi!



Erreakzio kimikoak bideoa:

<https://youtu.be/tC41eRBIhqq>



Laborategian jolasten bideoa:

<https://youtu.be/J1ufbWVHqlw>



DBH4

Oiartzungo geologiaz jabetzen

Denok jakin bezala, LUBERRI museoak gure ingurune geologiko aberatsaz jabetzeko aukera paregabea eskaintzen digu. Halaxe izanik, DBH4. mailako biologia geologia arloko ikasleek abenduan, bisitatu eta bertan jaso eta aurkeztutako altxorrez gozatuz, garrantzia geologikoz ere jabetzeko aukera izan genuen.



Inertzia printzipioa

DBH4ko Leire Chans ikasleak egindako lana da hau.

Fisika eta kimikan Newtonen legeak aztertzen aritu gara eta lan bikaina egin du inertzia printzipioa azaltzeko.

Ikusi!



Erreakzio kimikoak bideoa:
https://youtu.be/QPh9NDyJ_1M



GABON KANTARI



SAN NIKOLAS





07. TALDEA



TALDEA

Gure herriko hizkuntza zaharraren grina kutsatzeko asmotan

Beste urte batez ere indartsu dator **Eskuttun taldea!**

2004az geroztik euskararen alde buru-belarri jardun eta euskal zaletasuna ikaskideen artean bultzatzen aritu ondoren, prest gaude Eskuttunen historia luzea idatzia duen liburuko 18. kapitulu honi sarrera eginez, ahaztezina izango den ikasturteari ongi etorria egiteko.

Aurten 70 lagun ingururen artean banatuko ditugu eginbeharrak eta lanerako gure arma den hitza zorrozten ari gara. Gainera, DBH1etik datozen kide berriak ditugu; baita aurten azkeneko urteaz gozatzen ari diren DBH4ko gazteak ere.

Aurtengo ikasturtean zehar egingo ditugun ekintza askorekin heldu gara! Ikastolako hainbat jarduera antolatuko ditugu eta horietan parte hartu ere: Euskaraldia, Euskararen Eguna, Juul kanpaina...

Baina, batez ere, euskaraz gozatu, ongi pasa eta geure onena emateko asmoz gatoz.

Jarrai dezagun euskaraz gozatzen eta euskal zaletasuna sustatzen, ametsak egikaritu arte!

Euskaraz sentitu, pentsatu eta hitzEKIN!

Ongi izan.

Eskuttun taldea



Hautzaroko Talde BERDEA

Urtetan heldutako erronkari eutsiz, Ikastolako Plan Estrategikoan jaso eta Urteko Planean planifikatu bezala, Agenda 2030eko programan Garapen Iraunkorraren 7. Helburuaren lanketa sendotzeko datozen bi ikasturteetan, *Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea* deitu dugun eta *Energia, gure motorra* lelopeko proiektua aurrera eramango dugu.

. **ZER EGINGO DUGU?** Udalerrri eta ikastola mailan energia eskuragarria eta ez kutsatzailearen diagnostikoa egingo dugu.

. **NOLA EGINGO DUGU?** Adin guztietako ikasleek Oartzungo egoera aztertzeke jarduerak eskainiko ditugu, udalerririko puntu sendoak identifikatuz baita hobe daitezkeen alderdiak ere.

. **ZERTARAKO EGINGO DUGU?** Hezkuntza komunitateak udalerrria hobetzeko prozesuan parte hartuko du, proposamenak eta konpromisoak udal ordezkariari azalduz. Garapen Iraunkorraren alde, elkarlanean!

Agenda 2030 egitasmoak markatutako motibazioa-sentsibilizazioa, diagnostikoa, ekintza plana, komunikazioa eta ebaluazioaren faseak jorratuz, ingurumen gaien berritze eta eguneratze lanak egiten ditugu gure curriculumean. Esaterako, diagnostikoetan

lortutako emaitzekin gure lanean hobekuntzak txertatzea da helburua.

Eragile aktiboak izan nahi dugu gertuko ingurunea hobetzeko; natura zein giza harremanen ingurunea hobetzeko, alegia. Inguru gozoagoan, atseginoagoan eta iraunkorragoan bizi nahi dugulako. Aurten, gure kudeaketan eta partaidetzan ere hobekuntzak ezartzeko bai DBHn bai Lehen Hezkuntzan ikasleek **Talde BERDEAK** eta **EKOORDEZKARIEN taldeak** sortu ditugu.

Talde Berdeko ikasleek ekintza bereziak antolatu eta planifikatu dituzte, jada. Udazkenean bi proposamenekin hasi ziren: **lehena, taldea osatuko duten kideen kamisetetako LOGOa sortzeko kanpaina**, eta bigarrena, **etxetik ekartzen dituzten hamaiketako hondakinak murriztu asmoz, Boc n Roll izeneko zorroak banatzea**.



LABURRAK

—



Haurtzarokoak Durangoko Azokan

Aurten, bigarren aldiz, Haurtzaro Ikastolako ikasleek Durangoko Azoka bisitatu dute. Iaz, lehen aldiz, DBH4. mailakoak izan ziren joan zirenak. Aurten, berriz, DBH3koen txanda izan da. Abenduaren 7an, asteazkena izan ziren han. Irudian ikus daitekeenez ederki gozatu zuten, bereziki, En Tol Sarmiento (ETS) musika taldearen erakusmahaian.

Durangoko Azokara bisita urteroko hitzordu bihurtzea da asmoa.





Bihotz-babesa

Hautzaro eta Oiartzoren arteko zubiak eraikiz lankidetza sendotzen jarraitzen dugu.

Abenduan, egun Oiartzoko ikasleak diren gure ikasle ohiek, Aitor Perez Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin batera, DBH3 eta 4. mailako ikasleei bihotz-babesean trebatzeko ikastaro interesgarria eskaini ziguten.



08. LABURRAK



Zorionak idazle gazteei!

Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, Udalak antolatutako XXXV. Xabier Lete Prosa eta Poesia Lehiaketaren sariak banatu zituzten. Taulan dituzue gure saridunak. Mila esker lehiaketan parte hartu duzuen ikasleei eta ikasle ohi guztiei eta zorionak irabazleei!

MAILA	PROSA	LANAREN IZENA	IZENGOITIA	IZENA
LH3				
	SARIA	Eguzki sistemako bidaia	Eskorpioia	Mikel Arbelatiz Perkaz
	SARIA	Nola sortu zen mundua	Rule	Elur Ziaurritz Olaziregi
MAILA	PROSA	LANAREN IZENA	IZENGOITIA	IZENA
LH4				
	SARIA	Nexka ausarta	Leku	Nora Lekuona Agirrezabala
	SARIA	Liburuen mundua	Zapi gorri	Elaia Lasa Gelbentzu
	AIPAMEN BEREZIA	Edurne bere baserrian	Arrio	Irantzu Irastorza Uranga
MAILA	PROSA	LANAREN IZENA	IZENGOITIA	IZENA
LH5-6				
	SARIA	Egunero buelta bat	Malu	Arene Lujanbio Larrea
	SARIA	Bizitza gorria da	Mari Puri	Maddi Zumeta Arbelaitz
	AIPAMEN BEREZIA	Idazle izateko ametsetan	Eguzkilore	Aroa Pinillos Lekuona
MAILA	PROSA	LANAREN IZENA	IZENGOITIA	IZENA
DBH1-2				
	SARIA	Margarita	Don Kixote	Harriet Mitxelena Lekuona
	SARIA	Damu naiz	Liza	Alain Elizasu Iñarra



MAILA	PROSA	LANAREN IZENA	IZENGOITIA	IZENA
DBH3-4				
	SARIA	Zure memoria	Bitxilore	Lide Larrea Etxebeste
	SARIA	Irailaren 24a	Iratze	Iraia Zapirain Olasagasti
	AIPAMEN BEREZIA	Gabon	Arkatza	Ekhi Arizmendi Teiletxea
MAILA	PROSA	LANAREN IZENA	IZENGOITIA	IZENA
16-18				
	SARIA	Giltzapetutako mareak	Leittu	Mattin Etxebeste Sanzberro
MAILA	POESIA	LANAREN IZENA	IZENGOITIA	IZENA
LH5-6				
	SARIA	Hitzak	Eguzkilore	Aroa Pinillos Lekuona
MAILA	POESIA	LANAREN IZENA	IZENGOITIA	IZENA
DBH1-2				
	SARIA	Gogoratuz	Don Kixote	Harriet Mitxelena Lekuona
	SARIA	Munduak jaten nau	Ni	Ane Etxebeste Eizagirre
	AIPAMEN BEREZIA	Heriotza	Taupada	Kattalin Arabolaza Palomo

MAILA	POESIA	LANAREN IZENA	IZENGOITIA	IZENA
DBH3-4				
	SARIA	Zuri idazten dizudan bitartean	Arkatza	Ekhi Arizmendi Teiletxea
	SARIA	Ispiluak	Luma	Nara Susperregi Barroso
	AIPAMEN BEREZIA	Zer eskatu	Eguzki-lore	Maddi Zubia Aizpurua
MAILA	POESIA	LANAREN IZENA	IZENGOITIA	IZENA
16-18				
	SARIA	Kateak	Bixente	Amaur Aranburu Gorrotxategi
	SARIA	Armiarma sareak	Taxus	Maren Aginaga Bote
	AIPAMEN BEREZIA	Bi mundu	Barruak	Ane Garmendia Irastorza

PROSA
POESIA

ESKOLAZ KANPOKOAK

Eskolaz kanpoko ekintzak 22-23 ikasturtea

374 ikasle ditugu eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen. Batzuek ekintza bat egiten dute, beste batzuek gehiago. 22-23 ikasturte honetan, honako ekintza guzti hauek jarri ditugu martxan:

- Trikitia.
- Panderoa.
- Gitarra.
- Musikart (musika tailerra eta kontari).
- Antzerkia.
- Bertsolaritza.
- Dantza modernoa.
- Euskal dantzak.
- Eskulanak.
- Sorgin eta Aztien Heltzea.
- Robotika (Gaurkotekekin).
- Mekanografia (Kluppy-rekin).
- Atletismoa.
- Eskola Kirola.
- Xakea.

Ekintza batzuk astean bitan izaten dira eta gehienak, astean behingo saioak dira. Egunero-egunero, eguerdi zein arratsaldetan, hezitzaile talde ederra aritzen da lanean. Ekintza bakoitzean adituak eta profesionalak diren pertsonak dira eta formatzen jarraitzen dutenak ekintza gehienetan.

Hezitzaile lan taldea: zein garrantzitsua den zuen lana!

Ikasle hauek guztiak saio hauetan hezten hezitzaile aritzen dira.

Hezitzaile horien lana, bakoitzak bere esparruko jarduera irakasteaz gain, balore ezberdinak lantzen diren gun bat da.

Pertsonok aisialdian egiten duguna, gustura eta motibazioz egiten dugunez, bertan lantzen duguna errazago ikasi eta barneratzen dugu.

Harremanak, kooperazioa, enpatia, lankidetzak, ingurumenaren zaintza, elkar zaintza, errespetua, elkarbizitza, materialaren erabilera egokia, birziklapena, kultura, kirol ohiturak, pentsatzea, pentsaraztea, gorputzaren kontrola, koordinazioa, autoezagutza, mugak, gorputz adierazpena, erritmoa eta abar luze bat.

Gauza hauekin guztiekin antzeztan, bertsotan, dantzan, kirol ezberdinak praktikatzan, jolastan, arte lanak egiten, sortzen, abesten, musika tresnak jotzen, ordenagailuko teklatuaren erabilera egokia ikasten, robotak sortzen, programatzen eta erabiltzen, zirkuko hainbat material maneiatzen... irakasten diete hezitzaileek.

Ahaztu gabe, hau guztia, **EUSKARAZ** egiten dugula eta herriko ekimen askotan parte hartzen dugula eta herrian dauden festa eta jaietan ere bai.

Beraz, hezitzaile guzti hauek nor diren ere garrantzitsua da azaltzea, normalean isilpeko lanean aritzen diren profesional talde bikaina baita. Beraz, izen-abizenak eta aurpegia jarriko dizkiogu hezitzaile bakoitzari oraingoan:

- **Udane Eskudero Esnaola:** euskal dantzaria.
- **Udane Galardi Iñarra:** euskal dantzaria.
- **Ane Otegi Mayoz:** euskal dantzaria.
- **Iker Belintxon Lizarazu:** euskal dantzaria.
- **Lide Romero Lekuona:** euskal dantzaria eta atleta.
- **Emaitz Murua Arzallus:** bertsolaria.
- **Asier Urretabizkaia Merino:** xake jokalaria.
- **Iratxo Sarasola Kazabon:** aisialdiko hezitzailea.
- **Maddi Sarasola Kazabon:** aisialdiko hezitzailea eta dantza modernoko dantzaria.
- **Idoia Motiño Mendez:** hezitzailea eta eskulanetan eta sormen lanetan aditua.
- **Itziar Duarte Rosillo:** hezitzailea eta eskulanetan eta sormen lanetan aditua.
- **Xabier Azpiroz Ibarguren:** Eskola Kiroleko entrenatzailea.
- **Maidar Etxaniz de Lukas:** Eskola Kiroleko entrenatzailea.
- **Nagore Isasa Lizarribar:** Eskola Kiroleko entrenatzailea.
- **Maddi Mujika Txurio:** Eskola Kiroleko entrenatzailea.
- **Eneko San Jose Arbelaiz:** Eskola Kiroleko entrenatzailea.
- **Aitor Mitxelena Lekuona:** Eskola Kiroleko entrenatzailea.
- **Unai Kortajarena Canellada:** Eskola Kiroleko entrenatzailea.
- **Luken Vicente Garcia:** Eskola Kiroleko entrenatzailea.
- **Eitza Arriaran Elizalde:** Eskola Kiroleko entrenatzailea.
- **Ane Garmendia Irastorza:** Eskola Kiroleko entrenatzailea.
- **Xabier Belaunzaran Sanz:** atletismoko entrenatzailea.


- **Nahia Etxegoyen Hernandez:** atletismoko entrenatzailea.
- **Lier Bergaretxe Lizaso:** atletismoko entrenatzailea.
- **Manex Irigoien Etxebeste:** atletismoko entrenatzailea.
- **Ander Garaiair Pikabea:** atletismoko entrenatzailea.
- **Ixiar Oria Loyarte:** dantza modernoko dantzaria.
- **Eneritz Hernandez Diez:** dantza modernoko dantzaria.
- **Lur Kortan Rendin:** aktorea.
- **Saioa Aizpurua Arribas:** aktorea.
- **Karen Muñoz Etxebeste:** aktorea.
- **Uxue Arizmendi Portugal:** mekanografian aditua.
- **Maidar Santesteban Iturralde:** robotikan aditua.
- **Leire Prado Perez:** robotikan aditua.
- **Maddalen Dorronsoro Amiano:** musikako irakaslea.
- **Anne Barron Guerra:** musika tailerreko irakaslea.
- **Xabier Solano Maiza:** trikitilaria.
- **Iraitz Kanpandegi:** panderojolea.
- **Ander Ederra:** gitarra jolea.
- **Eli Barandiaran:** zirku tailerreko irakaslea.

Lan talde bikain honi eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen, gure ikastolako ikasleei irakasten diezue guztia irakasteagatik eta gure ikastolako parte izateagatik. Urtero-urtero egiten duzuen lana txalogarria da, egunerokotasunean eta baita emanaldi, erakustaldi, jaialdi, festa edo-eta bestelakoetan ere.


ESKERRIK ASKO!



09. ESKOLAZ KANPOKOAK



ESKERRIK



ASKO!

10. OIARTZO



Euskal Olinpiadak, gure arteko zubiak indartzeko

Orereta eta Haurtzaro Ikastolon ikas-ibilbideek bat egiten dute euren amaieran, batera eta leku berean itsasoratzen dira: Oiartzo batxilergo ikastolan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak bukatuta, batxilergoari ekitea erabakitzen dutenentzako, Oiartzo da Orereta zein Haurtzaro Ikastolon 0-18 urte ibilbidearen amaiera; azken geltokia, beste tankera bateko abenturei ekin aurretik.

1998an Orereta eta Haurtzaro Ikastolak elkarrekin euskaraz, euskaratik eta Euskal Herrira begira Oarsoaldeko gazteei kalitatezko batxilergo ikasketak eskaintzeko apustua egin genuenetik, pasatu dira 25 urte. Euri mordo egin du, hazi dira ibaiak eta sortu da putzua. Bi ibairen emaritik, Oiartzo putzua, gure Urederra.



Ikuspegi eta asmo horiei jarraiki, Oiartzo, Orereta eta Haurtzaro Ikastoletako ikasleek elkar ezagutu eta harreman berriak egiteko helburuz, Euskal Olinpiaden lehen edizioa ospatu berri dute Oiartzon. DBH4. mailako eta batxilergoko 1. mailako ikasleek hartu dute parte bertan; eta haiek beraiek arduratu dira antolaketaz ere, beren interesetatik abiatutako programa onduz.

Ikasturtearekin batera hasitako bilerek eman dute beren fruitua: jolasez, dibertsioz eta musikaz betetako egun borobilaz gozatu berri dute gure ikasleek. Elkar ezagutzeko jolasak, taldekako ginkana, hamaiketakoa eta Xabi Solanoren musika saioa bildu ditu Euskal Olinpiaden lehen edizioko programak.

Izan bezate ibilbide luzea Oiartzoko Euskal Olinpiadek eta izan bitez hiru ikastoletako ikasleen arteko harremanak eta sareak indartzeko mugarri!

ikastola



Matrikulazio epea
Otsailak 13-24

Aurkezpen bilera
Otsailak 7, asteartea, 17:00etan, Urmendin.

Ate irekiak
Otsailak 8, 9 eta 10, 10:00etan, 15:00etan eta 17:00etan.

“Bizitza bat motxilan”

HARREMANAK
EMOZIOAK
BIZIPENAK
CALDERAK · ERANTZUNAK
EZAGUTZAK
BALIOAK
AMETSAK

Informa zaitez gure webgunean
www.hurtzaroikastola.eus